

DERIOKO UDALERRIKO SEXU ERASOEI, GARRANTZI MEDIATIKOA HARTZEN DUTEN TRATU TXARREI ETA HERIOTZA ERAGITEN DUEN INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

Protokoloa abiatzeko moduko egoerak:

- a) Garrantzi mediatikoa hartzen duten tratu txarren kasuak.**
- b) Sexu-erasoen kasuak.**
- c) Heriotza eragiten duten indarkeria matxistako kasuak (normalean, tratu txarrak eta sexu-erasoa).**
- d) Egokitzat jotzen denean (adib.: erasotzailea udalerriko bizilaguna bada...).**

Osoko bilkurak Protokolo hau onartu bezain laster, udal ordezkariak duen alderdi politiko bakoitzetik pertsona bat izendatuko da protokoloaren arduradun gisa.

1) Protokoloaren arduradunen mahaiak, Alkatearekin batera, Berdintasun Teknikariarekin jarriko da harremanetan protokoloa abiatzeko, **Ertzaintzarekin eta Udaltzaingoarekin**, zer gertatu den zehatz jakiteko. Era berean, **Gizarte Ongizatea** Arloarekin ere harremanetan jarriko gara, biktimak edo erasotzaileak gizarte-zerbitzuak jasotzen dituzten jakiteko (tratu txarrak izan diren kasuetarako, normalean).

2) Alkatea, ahal izanez gero, **harremanetan jarriko da emakumearekin edo haren senideekin** (adingabea bada, soilik senideekin edo legezko tutoreekin), nola dagoen eta zer premia izan ditzake(t)en jakiteko. Beste ezeren gainetik, babes eta solidaritatea erakutsi behar dugu, eta, ahal badugu, geure burua akusazio partikular gisa aurkezteko aukera eskainiko dugu.

3) Dagokion gizarte-langileak (biktimak edo erasotzaileak gizarte-zerbitzuak erabiltzen badituzte) eta berdintasun-teknikariak proposatutakoari jarraituz, politikariak **dagokion erabakia hartuko dute** kasuan-kasuan.

Honako neurri hauek har daitezke, besteak beste: ezohiko osoko bilkura bat antolatzea, kontzentrazio edo manifestazio bat egitea eta gertaerak jendaurrean gaitzestea.

EZOHIKO OSOKO BILKURA

Protokoloa martxan jartzeko moduko kasu guztietan, gutxienez, Aparteko Osoko Bilkura baterako deialdia egingo da, eta bertan, gaitzespen adierazpena adostuko da.

KONTZENTRAZIOA / MANIFESTAZIOA

Kasuotan, kasuistika oso zabala izaten da, eta gertaerak gaitzesteko ekitaldi bat antolatzea erabakitzen bada (kontzentrazioa – manifestazioa), **biktimari edo haren senideei jakinarazi beharko zaie**, haiei baimena eskatzeko eta, horrez gain, antolatzen den ekitaldia ez dadin izan ustekabekoa eta ez dezan egoera okertu.

Polemikoa izan ohi da ekitaldiak biktimaren edo haren senideen baimenik gabe antolatzea, baina **gizarte-erantzun bateratu eta irmoa behar duen arazo publikoa** da. Dena dela, alderdi hori zaindu egingo da kasuan-kasuan.

Kasu bakoitzaren ezaugarri hauen menpe egongo da, adibidez: erasoak zer-nolako garrantzia izan duen sare sozialetan eta hedabideetan, eraso leku publiko batean eta beste pertsona batzuen aurrean gertatu den...

Erasotzailea errudun egin eta emakumea estigmatizatuko ez duen kultura soziala sortu behar da.

Baliteke mobilizaziorako deialdia udalerriko elkarte batek egitea edo egin nahi izatea, Udalak egin beharrean. Kasu horretan, Udala harremanetan jarriko da pertsona horiekin, eta bat egingo du egokitzat jotzen bada; horretarako, ordea, eskura izango du bat egiteak izan ditzakeen ondorioak aztertzeko beharrezko informazio guztia.

Halaber, beti kontuan hartuko da udalerrian ba ote dagoen Herritarren Berdintasun Batzorderik, elkarte feministarik edo emakumeen elkarerik.

Puntu lila duen pankarta udaletxeetan jarriko da astebetez (ohi bezala), edo denbora gehiagoz egokitzat jotzen bada; berdin egingo da **gaitzespen-adierazpenekin webgunean**.

JENDAURREKO GAITZESPEN ADIERAZPENAK / HEDABIDEETARAKO ADIERAZPENAK

Politikarien jendaurreko adierazpenetan, inoiz ez da bat-bateko erantzunik emango, eta genero-indarkeriaren kontrako kultura bat sortzeko ahalegina egingo da. Horrenbestez, honako hauek hartuko ditugu kontuan hedabideetarako adierazpenak egitean:

- Gertaturikoa ez da "gertakari" gisa definitu behar, eta ez da harridurarik erakutsi behar.
- Egiturazko indarkeriaren testuinguruan kokatu behar da beti, eta ez gertakari bakan bat balitz bezala.

- Azpimarratu behar da emakumeak inoiz ez direla jasaten duten indarkeriaren erantzule: indarkeria berau erabiltzen duen horren erantzukizuna da, ez beste inorena.
- Ez da aipatu behar biktimaren edo erasotzailearen nazionalitatea, eta gogora ekarri behar da emakume guztiak izan daitezkeela indarkeria matxistaren biktima eta ez dagoela erasotzaileen profil zehatzik.
- Nabarmendu behar da asko egin dela aurrera emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan.
- Hobe da ez aipatzea emakumeak aurrez salaketarik jarri ote zuen edo ez.
- Adierazi behar da Udalak lan aktiboa, integrala eta koordinatua egiten jarraitzeko konpromisoa duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen adierazpenik ankerrena den hori amaitzeko.
- Ez eman emakumea identifikatzeko moduko informaziorik (batez ere, adingabea bada), biktimizazio bikoitza saihesteko eta haren intimitaterako eskubidea errespetatzeko.
- Orobat, herritarrek adierazpen morbosoa egitea saihestu behar dugu: "*ez zion inori kalterik egiten*" edo "*oso bizilagun ona zen, eta aita ezin hobea*", adibidez. Txutxu-mutxuak eta sentsazionalismoa saihestu behar ditugu.